

**ONTZIGINTZA.** Europako Batasuneko hamabost Industria ministroek onartu egin dute Bruselan Europako Batasunak ontzigintzaren sektorean Hego Koreako Gobernuaren aurka hasitako prozesua. Seulgo Gobernuari lehia desleiala egitea leporatzen zaio.

# Europako ontziolak sustatu eta Korearekin lehiatzeko diru laguntzak onartu ditu Bruselak

Europako Batasuneko hamabost herrialdeek kargaontzien eta gai kimikoak garraiatzeko ontzien kostuaren %14a arteko diru laguntzak onartu dituzte



Hego Korearen kompetentzia desleiala dela eta, Europako ontziolak hiru urtean merkatuaren %23a izatetik %10a izatera pasa dira.

## DIRU LAGUNTZAK

Ontziolak, besteak beste, Hego Korearen lehia desleiala jasatea frogatu beharko dute

## KRITIKA

Espainiako ontziolen patronaleko buruaren iritziz, laguntzak «mugatuak» dira

tua %6tik gorakoa bada, Bruselari jakinarazi beharko zaizkio; ontziolak Hego Korearen eraginak jasaten dituela frogatu beharko dute eta iraupena behin-behinekoa izango da. Europako Batasunak Koreari Munduko Merkataritzaren Erakundearen jarritako salaketa bideratu arte iraungo dute gehienez, 18 eta 24 hilabete bitartean alegia.

Laguntzak karga ontziak eta gai kimikoak garraiatzeko tanke ontziak eraikitzen dituzten ontziolentzat izango dira.

Ramon Lopez, Espainiako Ontziolen Batasuneko zuzendari teknikoarentzat, Europako Batasunak onartutako laguntzak «mugatuak» dira, ontziola jakin batzuei baino ez zaielako lagunduko. Ontziolen patronaleko arduradunaren iritziz, *ferry* edo gasa garraiatzeko ontziolak, adibidez, ez dira kontuan eduki.

## La Navalen mesederako

Sestaoko La Naval ontziolaren ikuspuntutik, mesederako izango da neurria, enpresa korearrekin lehiatzeko pareko baldintzak izango baitituzte Europako enpresek, La Naval barne. Azken batean, iragan hiru urtean europarren produkzio ahalmena nabarmen jaitsi da, eta korearrenak gora egin du.

Koreako ontziolen sektorea munduko merkatuaz hiru urtean jabetu da, 1997an %14a izatetik %54a izatera pasa baita; europarrek, aldiz, merkatuaren %23a izatetik %10a baino ez dute gaur egun.

Korean Export Inport eta beste finantza erakunde batzuen bitartez mugagabeko laguntza publikoak Koreako enpresa handiei eman izana leporatu dio Batzordeak Seulgo Gobernuari. Hala, kostutik azpiko ontziak eraikitzen dituzte, MMEren arauak bete gabe.

## Erredakzioa | DONOSTIA

Europako Batasuneko Industria ministroek Hego Korearekin egoera hobean lehiatzeko diru laguntzak onartu zituzten atzo Bruselan ontzigintza sektorearentzat. Hala, Batasunak oniritzia eman dio Europako Batzordeak Hego Korearen aurka hasitako prozesuari.

Hamabost herrialdeen arteko akordioa erabatekoa izan da, nahiz eta hasiera batean hainbat herrialdearen oposizioa saihestu behar izan den. Agentzietako informazioaren arabera, Suedia, Erresuma Batua, Holanda eta Danimarka, zehazki, ez zetozen bat erabakiarekin,

abenduan abenduan amaitu baitziren Batasunak banatu beharreko azken laguntzak.

Europako Batasunak, beraz, itsasontzien kostuaren %14a arteko diru laguntzak emango ditu; baina, pauso hori eman aurretik, Korearekin akordio bat iristen saiatuko dira. Koreak ekainaren 30a arteko epea du. Bestela, Europako Batasunak MME Munduko Merkataritza Erakundearen aurrean salatuko du Asiako herrialdea eta une horretan hasiko litzateke laguntzak banatzen.

Europako Batzordeak baldintzak zehatzak ezarri zituen: diru laguntzek ontzien kostuaren %14 beteko dute gehienez; kos-

## KOREA

### Auzia konpontzeko batzordea

Hego Koreak, MME Munduko Merkataritza Erakundearen aurrean izan aurretik, konponbide bat lortzeko asmoa agertu du. Seulgo Gobernuko bozeramaileen arabera, Hwang Doo Yun Nazioarteko Merkataritza ministroak eta Pascal Lamy Europako Batasuneko Merkataritza komisarioak hitzartutako irtenbide bat iritea espero dute. Hala, igandean izandako bilera batean bi aldeek zehaztu zuten lehenbailehen Europako Batasuneko, Koreako eta ontzigintza sektoreko ordezkariak osatutako batzorde bat osatzea.

Hala ere, ez dute denbora asko, epea jarria baitago: ekainaren 30ean, akordiorik ezean, salaketa jarriko da. Hala zehaztu zion argitasun osoz Pascal Lamy komisarioak, herenegun, Bruselan, Koreako ordezkariari. Lamyk Europako Batasunak aurrera daraman politika argitu zion Doo Yuni.